

**2011KO ABENDUAREN 1EAN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO  
BATZARRALDIAREN AKTA.**

**LEKUA:** Beasaingo Udaletxea.

**ARETOA:** Batzar Aretoa.

**EGUNA:** Bata.

**HILABETEA:** Abendua.

**URTEA:** Bi mila eta hamaika.

**HASIERAKO ORDUA:** Arratsaldeko zazpiak.

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehena.

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Hamazazpi (17)

**UDALBURUA:** Koldo Agirre Mujika

**BILDUAK:**

- M<sup>a</sup> Mar Celaya Gonzalez
- Aitor Larburu Izaguirre
- Asier Sarriegui Zumarraga
- Cecilia Herrador Garin
- Iñaki Saldaña Herrero
- Aitor Aldasoro Iturbe
- M<sup>a</sup> Luisa Valles Fernandez
- Leire Artola Ugalde
- Iñigo Arrese Artabe
- Encarna Arrieta Telleria
- Eva Diaz del Rio
- Fernando Boada Gonzalez
- Ana María Crespo Blanco
- Josi Insausti Mujika
- Julio Herreros Serna
- Unai Baztarrika Otegi

**IDAZKARIA:** Itziar Arostegi Apaolaza

Bileran, Lurdes Alegria Lasa, kontuhartzaileak ere parte hartzen du.

**1.- AURREKO AKTA.** 2011ko azaroaren 3ko eta 11ko aktak onartzeko proposamena.

2011ko azaroaren 3ko eta 11ko akten berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dituzte.

**2.- ZINEGOTZI KARGUAREN JABETZA ONARTZEA:** Alfonso Segade González.

Alkate jaunak (BILDU), ondorengo dio: “FERNANDO BOADA GONZÁLEZ jaunak zinegotzi karguaren errenuntzia aurkeztu ondoren, 2011ko azaroaren 3an egindako Plenoan errenuntzia hori onartu zen eta Hauteskunde Batzorde Zentralari eskatu zitzaion, legalki zinegotzi kargua hartzea dagokion hautagaiaren alde bidezkoa den egiaztatzea emateko. 2011ko azaroaren 17ko datarekin, ALFONSO SEGADE GONZALEZ jaunaren alde emandako kredentziala jaso da.

ALFONSO SEGADE GONZALEZ jaunak, bateraezintasun eta ondasunen aitortzea aurkeztu du eta orain egin behar duena da zinegotzi karguaren jabetza hartu, apirilaren 5eko 707/1979 Erret Dekretuaren bidez ezarritako zin-egite formula baieztatuz.”

Jarraian, Alkate jaunak, ALFONSO SEGADE GONZALEZ jaunari legez ezarritako zin-egite formula irakurri dio, hau da:

“¿Juras o prometes por tu conciencia y honor cumplir fielmente las obligaciones del cargo de concejal con lealtad al Rey, y guardar y hacer guardar la Constitución como norma fundamental del Estado?.

Alfonso Segade Gonzalez jaunak baieztatu egin du eta horren ondorioz, ALFONSO SEGADE GONZALEZ jaunak, zinegotzi karguaren jabetza hartu du.

**3.- 22 AREAKO HIRI ANTOLAKUNTZA EGITASMO BEREZIARI BEHIN BETIKO ONESPENA EMATEA.**

Alkate jaunak (BILDU) Hirigintza Batzordeko ondorengo proposamenaren berri eman du:

**“HIRIGINTZA BATZORDEKO PROPOSAMENA**

**AURREKARIAK**

1.- 2011ko irailaren 21ean, Alkateak ebatzi zuen, Eztanda, 22 areari buruzko 22.1 egikaritze unitatearekiko Hiri Antolakuntza Egitasmo Bereziari hasierako onespena ematea.

**2.-** Espedientea jendaurrean jarri zen, Berrian, Diario Vasco eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2011ko irailaren 22, 23an eta 26an hurrenez hurren iragarkiak argitaratuz. Aldi berean, eremuko jabeei banakako jakinarazpena egin zitzaion.

**3.-** Alegazioak aurkezteko epean, Luis M<sup>a</sup> García Gómez jaunak ADIFen ordezkari gisa, sinatutakoa aurkeztu zen (sarrera data: 2011-10-10), ondorengo adieraziz:

ADIFeko ordezkariak, H.A.P.B.an ezartzen den U.E.22.1 Exekuzio unitatearen zedarriztapena AA.SS.etan agertzen denarekin ez datorrela bat adierazten du, 6366006 partzela katastrala eta eremuaren mugaren arteko lur zatia Unitateatik kanpo utziz. Exekuzio unitatea AA.SS.an agertzen dena izan dadila eskatzen du.

Trenbide Azpiegituren Administrazioaren (ADIF) Ondasun Higiezinaren Inbentario Orokorren arabera, erakunde publiko hau AA.SS.etan ezartzen den Eztanda 22. Eremuko U.E.22.1 Exekuzio Unitatearen barnean dagoen lurzati baten jabe da, zeina Beasainen Madrid Irun trenbidea eraikitzekeko desjabetutako lurren artean aurkitzen da. ADIF, U.E.22.1 exekuzio unitateko lursail batzuen jabe bezala ager dadila eta horren arabera, ondorengo dokumentuetan interesatu bezala komunikatua izan dadila eskatzen du.

Azekenik, jabari publiko eta trenbidearen babes lerroan (8m eta 70 m) burutzen diren lanek ADIFen aurretiko baimena izan behar dutela adierazten du.

**4.-** Epez kanpo, (alegazioak aurkezteko data, azaroaren 3an amaitzen zen), Josefa Gaztañaga Iparraguirre andreak sinatutakoa aurkeztu zen "Gaztañaga y Telleria S.L."ren ordezkari gisa (sarrera data: 2011-11-04). Alegazioak ondorengo dio: bere osotasunean exekuzio Unitatearen barruan dauden 6366024 eta 6366026 finken azalerak Hiri Katastroarekin bat ez datozela adierazten du, H.A.P.B.ko 2.4 Hirigintza Informazioa atalean datuak iturri horretatik jaso direla esan arren. Katastroan agertzen diren azalerak ager daitezela eskatzen du.

Bestetik, Bideragarritasun Ekonomiko-Finanziero Azterketan agertzen den Lurzoruaren Oihartzun balioa (60€/m<sup>2</sup>) katastroatik eratorritik denarekin alderatuz (174,28€/m<sup>2</sup>) dexentez baxuaga dela adierazten du. Balio hau zuzendu dadila eskatzen du.

**5.-** Hiri Antolakuntza Egitasmo Berezia, Uraren Zuzendaritzara eta Bide Azpiegituretako Zuzendaritzara bidali zen, txostena emateko eskatuz. Bien kasuan aldeko txostena eman da

**6.-** 2011ko azaroaren 9ko datarekin, alegazioei buruzko txosten tekniko hau eman da:

#### **1. Alegazioa (Luis María García Gómez –ADIF-):**

AA.SS.en eta H.A.P.B.aren asmoa, trenbide erabilera duten lurzoruak (baita ibai ibilgua eta eskualde errepidea) Exekuzio Unitateatik kanpo uztea da, eremu honetarako planteaturiko helburuei erantzuteko beharrezkoak ez diren heinean.

6366006 Partzela Katastrala eta 22. Eremuaren mugaren arteko lurzatia, H.A.P.B.ak U.E.22.1etik kanpo uzten duena, ADIFen jabetzakoa da, trenbide erabilerakoak. Hori dela eta, H.A.P.B.ak egiten duen U.E.22.1aren zehaztapena egoki dela irizten diot.

Era guztietan, U.J.P. (Urbanizatzeko Jarduketa Programa) izango da Exekuzio Unitatearen Behin betiko zedarriztapena izendatuko duena.

Udaletxea jakinaren gainean geratzen da idatzian agertzen diren babes eta baimen baldintzetaz. U.E.21.1eko Hitzarmen Batzarra izango da eremuaren gestioa sustatuko duena, eta hortaz, dagozkion notifikazioen arduraduna.

Guzti hori dela eta, alegazioa atzera bota beharko litzatekela irizten diot.

## **2. Alegazioa (Josefa Gaztañaga Iparraguirre –Gaztañaga y Telleria S.L.-):**

H.A.P.B.ko I.2 planuak, lur jabetzaren egitura grafikoki agertzen du, Planu-Katastrala oinarritzat hartuz (Hirigintza Planeamenduko Erreglamenduan ezartzen den bezala). Lurjabe bakoitzaren azalerak ez datoz bat Hiri-Katastroarekin. Honen arrazoia, eremuaren topografikoan eginiko neurketa berriek emandako emaitzen arabera, errealtate fisikoari gehiago hurbiltzea da.

Era guztietan, lurjabe bakoitzaren behin betiko azalerak Birparzelatze Proiektuak ezarriko ditu. Aspektu honek plan bereziaren edukin normatiboari eragiten ez dionez, agertzen den azalaren taula egoki bezala kontsidera daitekela irizten diot, dokumentu honi eskatzen zaion definizio mailari egokitzen dena.

Bestetik, alegatzaileak adierazten duen lurzoruaren balorea, Ponentzia Katastraletako lurzoruaren oinarritzko oihartzun baloretik abiatzen da, baina lursailaren kokapen urbanistikoa edota aprobetxamendu urbanistikoaren koefizienteak kontutan hartu gabe.

Plan Bereziaren Bideragarritasun Ekonomiko-finantziario Azterketan ezartzen den lurzoruaren oihartzun balioa, zenbait kontsulta inmobiliario eta planaren egilearen azterketa batzuen emaitza da. Bere funtzioa, planaren bideragarritasun ekonomikoaren justifikazio bat burutzea delarik.

Lurzoruaren behin betiko oihartzun balioa Birpartzelatze-Proiektuak ezarriko du. Hori dela eta, plan honetan adierazten den balioa, duen helbururako egoki kontsidera daitekela irizten diot.

Horren ondorioz, hirigintza batzordeak Udalbatza Osoari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

**Lehenik.** Aurkeztutako alegazioak txosten teknikoaren arabera ebaztea, deuseztatuz.

**Bigarren.** Eztanda, 22. areako Hiri Antolamenduko Egitasmo Bereziari behin betiko onespena ematea.

**Hirugarren.** Aipatutako Egitasmo Berezia, Gipuzkoako Foru Aldundira igortzea, Foru-aldundiko erregistroan sartzeko.

**Laugarren.** Behin betiko erabakiaren berri probintzian gehien zirkulatzen duen egunkariak argitaratzea eta erabaki hau gehi Egitasmo Bereziaren ordenantzak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

#### **4.- UGARTEMENDI, 3. SEKTOREKO EGITASMO PARTZIALA LAZKAOKO ETA BEASAINGO UDALERRIEN MUGA-LERROA ZEHAZTEAREKIKO ETA MUGARRIAK OANRTZEAREKIKO AKTARI EGOKITZEKO KONPROMISOA**

Alkate jaunak (BILDU) Hirigintza Batzordeko ondorengo proposamenaren berri eman du:

**“Gaia: Ugartemendi, 3. Sektoreko Egitasmo Partziala Lazkaoko eta Beasaingo udalerrien muga-lerroa zehaztearekiko eta mugarriak onartzearekiko aktari egokitzea.**

#### **AURREKARIAK**

1.- 2008ko irailaren 11an Udalbatza Osoak behin betiko onespena eman zion Ugartemendi, 3. Sektoreko Egitasmo Partzialari.

2.- Lazkaoko Udalak, erabaki horren aurka birjarpen helegitea aurkeztu zuen eta ondoren administrazio-isiltasunaren bidez ez onartzearen aurka Euskal Herriko Autonomia Elkarteko Justizia Auzitegi Nagusiaren aurrean, administrazioarekiko auzi-errekurtsua (839/2009) aurkeztu zuen, Egitasmo Partzialak antolatzen duen gunearen lursail batzuk, Lazkaoko udalerrian kokatuta daudelako kontsideratzeagatik.

3.- Lazkaoko Udalak Beasain eta Lazkaoko udalerrien arteko muga, mugarriak errekonozitzeko eta falta direnak jartzeari buruzko espedienteari hasiera ematea erabaki zuen eta horretarako batzorde bat izendatu zuen. Beasaingo Udalak horren berri izan ondoren, 2009ko martxoaren 5eko Udalbatza Osoan gauza bera egitea erabaki zuen eta dagokion batzordea osatu zuen, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta afektatutako jabeen horren guztiaren berri emanez.

4.- Bi Udalek 2011ko maiatzaren 12 eta 13an egindako bileretan, Lazkaoko eta Beasaingo udalerrien muga-lerroa zehazteko eta mugarriak onartzeko 2009ko azaroaren 12an eta 2011ko maiatzaren 5ean egindako eragiketen akta onartu zuten

eta espedientea amaitu zen, 2011ko uztailaren 19ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Foru Administrazio eta Funtzio Publikoko Departamentuko Diputatuak 2011ko uztailaren 12an emandako Foru Agindua argitaratuz. Agindu horretan xedatzen dena da, aipatutako akta argitaratzea.

**5.-** Mugaketa lanak burutu bitartean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren prozedura etetea eskatu zenez, Lazkaoko Udalak egoera hori eperik gabe ez luzatze arren, 2011ko urriaren 18ko datarekin Beasaingo Udalari eskatu dio, Ugartemendi, 3. Sektoreko Egitasmo Partziala eta Urbanizatzeko Jarduketa Programa (2009-03-17an behin betiko onartua), Lazkaoko eta Beasaingo udalerrien muga-lerroa zehazteari eta mugarriak onartzeari buruzko aktan jasota dagoenarekiko egokitzea edota, egokitze konpromisoa onartzeko erabakitzea, 3. Sektoreko gunean aurreikusten diren lursail batzuk Lazkaoko udalerrian daudelako.

Horren ondorioz, hirigintza batzordeak, kontutan izanik, Ugartemendi, 3. Sektoreko Egitasmo Partziala, inizatiba pribatukoa dela eta Urbanizatzeko Jarduketa Programa onartu ondoren, jabeek ez dutela inolako dokumenturik aurkeztu izapidetzeko, Udalbatza Osoari ondorengo erabaki proposamena egiten dio:

**Ugartemendi, 3. Sektoreko Egitasmo Partziala, 2011-07-19an argitaratutako aktan jasotako Lazkaoko eta Beasaingo udalerrien muga-lerroa zehaztearekiko eta mugarriak onartzearekiko egokitzea. Egokitze horren ondorioz, Urbanizatzeko Jarduketa Programaren aldaketa burutu beharko da.”**

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

#### **5.- ALDIZKAKO EPEMUGA EZ DUTEN ZORREN GERORAPENERAKO ETA ZATIKAPENERAKO IRIZPIDEAK.**

Alkate jaunak (BILDU) Hazienda Batzordeko ondorengo proposamenaren berri eman du:

“**GAIA.-** Aldizkako epemuga ez duten zorren gerorapenerako eta zatikapenerako irizpideak.

2009ko azaroaren 27an onartu eta behin eta berriro luzatu den erabakiaren arrazoiak irauteaz gain, egoera ekonomiko-finantzario txarra areagotu egin da. Horregatik, hain zuzen ere, Hazienda Batzordeak Udalbatzari **proposatzen dio 2.012ko abenduaren 31ra arte lehengoko akordioaren indarraldia luzatzea, zati batean aldatuz, urbanizazio kuotei eta exekuzio subsidiarioei ere aplikagarri izan dadin ahalbidetuko duen aldaketa onartzuz.**

“Ekonomia eta finantza alorrean gaur egun bizi den krisialdi familietan eta enpresen eguneroko trafikoan likidezia falta eragiten ari da. Likidezia hori behar-beharrezkoa dugu gure sistema ekonomikoan dauden obligazioei, eta besteak beste, zerga arlokoiei, aurre egin ahal izateko. Hau guztiarengatik eta udal ogasunari egin beharreko ordainketak erraztearen alde kontutan izanik egungo finantza krisialdiak sorturiko

ezohiko inguruabarrak, egokia ikusi da aldizkako epemuga ez duten zorren gerorapen eta zatikapenerako irizpideak arautzea..

Azaldutakoaren arabera eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak 64.5 artikuluan xedatutakoaren babespean, Hazienda Batzordeak Udalbatzari ondorengo akordio PROPOSAMENA egiten dio:

1.- Borondatezko epean dauden aipatutako zorren ordainketa geroratu eta zatikatu ahal izango da betebeharpekoaren egoera ekonomiko eta finantzarioak, organo eskudunaren iritziz, ordainketa egitea eragozten badio aldi baterako.

2.- Ordainketak Geroratzeko eta Zatikatzeko irizpide orokorrak ondorengo hauek izango dira:

**a. 800 eurotik beherako zorrak / Para deudas no superiores a 800 euros:**

- Gerorapena / Aplazamiento:

- a.1. 100 eta 200 euro artean /De 100 a 200 euros..... 1 mes /hilabete
- a.2. 201 eta 400 euro artean / De 201 a 400 euros..... 2 meses /2 hilabete
- a.3. 401 eta 600 euro artean /De 401 a 600 euros..... 3 meses /3 hilabete
- a.4. 601 eta 800 euro artean /De 601 a 800 euros.....4 meses /4 hilabete

- Zatikapena/ Fraccionamiento

- a.5. 100 eta 200 euro artean /De 100 a 200 euros..... 1 mes /hilabete
- a.6. 201 eta 400 euro artean / De 201 a 400 euros..... 2 meses /2 hilabete
- a.7. 401 eta 600 euro artean /De 401 a 600 euros..... 3 meses /3 hilabete
- a.8. 601 eta 800 euro artean /De 601 a 800 euros.....4 meses /4 hilabete

**b. 800 eurotik gorako zorrak / Para deudas superiores a 800 euros:**

- Gerorapena / Aplazamiento:

- b.1. 800 eta 12.000 euro artean /Desde 800 a 12.000.....6 meses/ 6 hilab.
- b.2. 12.001 eta 24.000 euro artean /Desde 12.001 a 24.000.....12 meses/ 6 hilab.
- b.3. 24.001 eta 36.000 euro artean /Desde 24.001 a 36.000 ..... 18 meses / 6 hilab.
- b.4. 36.001 eurotik aurrera /A partir de los 36.001..... 24 meses / 6 hilab.

- Zatikapena /Fraccionamiento:

b.5. 800 eta 12.000 euro artean /Desde 800 a 12.000.....6 plazos mensuales

b.6. 12.001 eta 24.000 euro artean /Desde 12.001 a 24.000.....12 plazos mensuales

b.7. 24.001 eta 36.000 euro artean /Desde 24.001 a 36.000 ..... 18 plazos mensuales

b.8. 36.001 eurotik aurrera /A partir de los 36.001..... 24 plazos mensuales

- Organo eskudunak, kasu bakoitza aztertu eta gero, gerorapen edo zatikapena onartzea erabakiko du. Organo eskudunak, zehaztuta ez dauden ordainketa epeak onartu ahal izango ditu, beti ere zehaztuta dagoen gehiengo epea gainditzen ez den bitartean.

3.- Borondatezko epea amaitu ondorengo 12 hilabete edo gutxiagoko epeko gerorapen eta zatikapenak ez dute interesik sortuko.

4.- Berandutza eta zatikapena onartuz geroko lehen urtea igaro ondoren, zordundutako kopuruengatikoko diruaren interes legala sortuko da.

5.- Oro har, araudi honen arabera emandako gerorapen eta zatikapenetan ez da bermerik eskatuko.

6.- Epealdi bakar baten ordainketa betebeharra haustea nahikoa izango da zatikapen edo gerorapen emakida bertan behera gelditzeko eta epe exekutiboan hasteko. Horrela, geroratutako zorra, interesak eta dagokion gainkargua eskatuko dira.

7.- Araudi honetan xedatutako baldintzen arabera gerorapenak eta zatikapenak emateko Alkateari ematen zaio eskumena, Hazienda Batzordearen aurretzako aldeko eta nahitaezko proposamenaren arabera.

8.- Araudi honen indarraldia onartua izaten den unean hasiko da eta 2012ko abenduaren 31n amaituko da. Onartzen diren irizpide hauek ez-ohiko moduan aplikatuko zaie urbanizazio kuotengatikoko zorrei, beti ere berandutza edo zatikapena borondatezko epearen barruan eskatu bada eta araudi hau indarrean sartzeko unean ordaindu gabe badaude, hainbat zirkunstantzia tartean izanik egindako eskaria ebatzi ez denean edota ebatzita ere egikaritu ez denean.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

**6.- ORDEZKARIAK IZENDATZEA.** Udalak parte hartzen duen entitateetan, Alfonso Segade jaunaren alde karguak izendatzea.



Alkate jaunak ondorengo proposamenaren berri eman du:

**“Gaia: Udalak parte hartzen duen entitateetan karguan izendatzea.**

*Kontuan izanik, 2011ko azaroaren 3ko batzaraldian, Fernando Boada González jaunak aurkeztutako zinegotzi karguaren errenuntzia onartu zela eta bere orde zinegotzi kargua, Alfonso Segade González jaunak hartu duela, Udalbatza Osoari ondorengo erabaki proposamena egiten zaio:*

**Lehenik.** ALFONSO SEGADE GONZÁLEZ jaunari entitate hauetan, ordekoa izateko izendapena egitea:

SASIETA MANKOMUNITATEA  
GOIERRI BEHEKO INDUSTRIALDEA  
GOIERRIKO HERRIEN EKINTZA

**Bigarren.** *Beasain Lantzen, S.A.ren Administrazio Kontseiluko kidea izendatzea.”*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez onartu da proposamena.

Alkateak komentatu du, Fernando Boada Gonzalez jauna zegoen batzordeetan, hemendik aurrera Alfonso Segade Gonzalez jauna egongo dela.

**7.- ORDEZKARIAK IZENDATZEA.** GOIEKIn ordezkariak izendatzea:

Alkate jaunak ondorengo proposamenaren berri eman du:

*“Alkatetza honek Udalbatza Osoari, GOIEKIKO Administrazio Kontseiluan parte hartzeko, ondorengo zinegotziak izendatzea proposatzen dio:*

**BEASAIN:** M<sup>a</sup> MAR CELAYA GONZÁLEZ (BILDU), AITOR ALDASORO ITURBE (EAJ/PNV), ANA M<sup>a</sup> CRESPO BLANCO (PSE-EE/PSOE).”

Aldi berean ezagutzera eman du, beste Korporazioetatik GOIEKiko kide izateko zein zinegotzi proposatzen diren, hau da:

**ORDIZIA:** IGOR EGUREN IZAGIRRE (BILDU) JOSE MIGUEL SANTAMARIA EZEIZA (EAJ/PNV).

**LAZKAO:** AZEARI SUMAKILA ANDONEGI BERISTAIN (BILDU)

**ATAUN:** IGOR AIERBE GURIDI (BILDU)

**ORMAIZTEGI:** ROSARIO M<sup>a</sup> URQUIA GOITIA (BILDU)

**LEGORRETA:** BAKARTXO MENDEZ URDANGARIN (BILDU)

**IDIAZABAL:** IORITZ IMAZ BAZTARRIKA (IZAL BAI)

**MUTILOA:** IÑAKI UGALDE ALUSTIZA (MUTILOAKO HERRI KANDIDATURA)

Jarraian, Alkate jaunak (BILDU) ondorengo dio: “Herritarren erabakiz, gehiengo gobernuak eskuratu genuenetik, batzuen eta besteen jarrera zein izan den laburbildu nahiko nuke, beasaindarrontzat ez ezik goierritarrontzat garrantzia handia duten erabakia hartu aurretik. Beraz, talde guztiei hausnarketarako deia luzatu nahiko nizueke. Gobernutik hasiera hasieratik izan gara jakitun, kudeatu beharko zuen sentsibiltate anitzek adostasunerako ahaleginak biderkatzea suposatuko ligukeela. Horretan gure jarrera irekia izan da. Gobernu Batzordean ia talde guztiak sartu ditugu. Batzordeetan parte hartzea ere irekia mantendu dugu eta lehen erabakietan adostasuna bilatzen saiatu gara. Hala ere GOIEKiko Administrazio Kontseiluan Beasainek izendatu beharreko partaidetzarekin, akordioa erdietsi ondoren atzera egin zenuten. Guk jarrera hori ez dugu ulertzen eta ez dugu intentzio txarretan pentsatu nahi. Ordiziako Alkatea PNVko zinegotziekin harremanetan jarri zen, haiekin adostasun bat lortuz. Ondoren, PSOEkoek ere zerrenda hari adostasuna eman zioten. Hau aurrera ateratzea zihoenean, abenduaren 15eko Osoko Bilkura berezian, hau egin baino ordu pare bat lehenago, giroa nahastu eta zerrenda hori baldintzapean jarri zenuten. Gu ziur gaude, herritarrei irudi kontua baino, eguneroko arazoak ardua gehiago sortzen dizkiela eta horrela adierazi zaigu auzoz auzo eginiko bilera zabaletan. Ezin dugu ulertu besterik gabe eta kudeaketan hasi aurretik erakundea blokeatzen ahalegintzea, ezer ez dela egiten esan ahal izateko. Kalte larriegia herritarrentzat. Arazoak konpontzeko hautatuak izan garenak, arazo bihurtzea. Hausnarketa hau egitea proposatzen dizuet: kontsignak eta estrategia politikoa alde batera utzi eta egoera zail hauetan, erantzunak elkartuta bilatzea. Eginkizun horretan pentsatzen duguna baino adostasun gehiago izango dugula ziur nago. Orain estuak diruditen bideak zabaltzeko borondatea eta konpromisoa dugulako, denekin hitz eginez jarrera konpondu ditzakegulako. Beraz, une honetatik GOIEKiko Administrazio Kontseilurako Estatutuetan jasotako ordezkaritza izendatzea eskatuko nizueke, hauteskondeen araberako banaketa eskualde mailan adostu zen bezala onartuz. Egia da, GOIEkin partaidetza ahalik eta zabalena komeni dela, baina lehenik lanean hasi egin behar dugu, dagoeneko dezenteko atzerapena daramagulako. Administrazio Kontseilua osatzea da lehen lana eta horretarako gauzak ondo egin nahi baditugu, ditugun tresnetaz baliatu behar gara, ondoren sentsibiltate guztiei irekiko garela ez dezala inork zalantzan jarri: agente politiko, sindikal eta sozialen lankidetzara bilatzea izango da gure lan estiloa. Beraz, hor dago gure proposamena, guztien artean adostutakoa. Nire aldetik besterik ez, jarrera positibotan jarri gaitetzela eta hasi gaitetzela egitasmoetaz diskutitzen eta jarrerak hurbiltzen.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Josi Insausti jaunak (H1): “Zuk irakurri duzun testu horri lotuta eta azkeneko Plenoa bertan behera gelditu izanak inori ez zigun mesederik egin, ezta ere, ez zen inoren gogokoa izan. Esan zenuten goitik esan zizuela Plenoa bertan behera uzteko eta egia esan gaur dakarkizuen proposamena ikusita ez dakit zergatik Pleno hura bertan behera gelditu zen, zeren era helburua denon artean adostasun batera iristea bazen, esan beharra daukat proposamen hau ez dagoela denon artean adostua, izan ere alderdi batzuei ez zaigu deitu ere egin. Bestaldetik esan behar da eta nik horrela sinistu nahi dut, zuek planteatzen duzuenean partaidetza zabala, adostua etab., nik egia esan sinisten dizut, zeren eta plazan ere esan zenuen ondo iruditzen zaizula denon parte hartzea egokia izango zela. Baina, kezka bat sortzen zait: orain arte, GOIEKIn nola edo hala denon parte hartzea bultzatu da eta lortu da. Alderdi batek hainbat udaletxeetan ordezkariarik ez zuenez, denok dakigun legearen ondorioz, baina aldez, udaletxe txiki batzuetan, Itsasondon bezala, ordezkari itza izanda, posibilitatu zen ilegalizatuta zegoen alderdi horrek ere bere partaidetza GOIEKIn ziurtatzea. Azkenean, alderdi guztien artean sukalde lan serioa egiten zen eta sortutako espiritu hura mantentzen zen. Orain, ordea, ikusten dugu hemen hori puskatu egiten dela, lehen ere Sasietan gertatu zen bezala. Yo lo que te planteo es dejar esta propuesta encima de la mesa y que cojas el liderazgo para dar pié a que todos puedan participar en GOIEKI. Baiezkoa edo ezezkoa eskatzen dugu.”

Alkatea jaunak (BILDU): “Aurkeztutako proposamena mantentzen dugu.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Josik esan duenari jarraiki esan, EAJk GOIEKIN hamaika ordezkari, bi bakarrik dituela. BILDU EAJrengana etortzen denean, nik adostu dezaketena da EAJk zein ordezkari izango dituen GOIEKIn. Nik ezin dut alderdi sozialistaren izenean hitz egin. Puede intermediar para que como se me pidió, el partido socialista eligiera a la persona oportuna en Beasain, a poder ser, pero yo no puedo tomar las decisiones del partido socialista, ni del consenso que se pide o la representación tan amplia que se pide. Creemos que nosotros estamos atados de pies y manos para ir más allá de lo que nos corresponde. Nosotros lo que hablamos en su día fue quienes iban a ser los dos de nuestro partido, pero no más. En aquel entonces ni se había hablado con los municipios pequeños, ni con el partido socialista. Ahí quedó lo que se habló. Cuando nos llegó la propuesta si vimos que se rompió con el espíritu que había hasta entonces. Nik uste dut GOIEKIn kasu beste legegintzalditan ez bezala, BILDUK aukera duela gehiengoari uko egin gabe, ordezkari itza daukagunaz gain, beste alderdi politikoei bide emateko hori egon daitezkeen, hau da, alderdi popularrari, Hamaika Bati eta Aralari. Iruditzen zaigu, ordezkari itza zabala egon dadin, aurretik hitz egin behar dela eta guk pentsatzen dugu ordezkari itza hori udaletatik bermatzen dela eta ez GOIEKIn bertan. GOIEKIn bermatzen da bertan egotea, baino ez hitz egiten duenak bozka izatea. Hori udaletatik bermatu behar da. Hori dela eta hitz egiteko

inolako intentziorik ez balego, eta proposamen hau atzera botatzeko intentziorik ez balego, guk proposatzen dugu kontraproposamen hau bozkatzea: beste herrietan GOIEKIrako bermatu ezin diren alderdiei tokia egitea. Guk gure aldetik uko egingo genioke GOIEKIn egoteari, Beasainen aldetik eta guk proposatzen duguna da, alderdi popularreko Julio Herreros, alderdi sozialistako Ana Crespo eta Hamaika Bateko Josi Insausti, bertan egotea.”

Alkatea jaunak (BILDU): “Guk egindako prozesua, GOIEKiko Estatutuek markatzen dutena izan da. Estatutuek esaten dute, Ordiziko Udalak bi ordezkari izango dituela, Beasaingoak hiru, Lazkaok bat eta beste bost herriek beste ordezkari bana. Horrezaz gain, zein alderdietakoak izan behar diren, Estatutuek markatzen dituzte eta Estatutu horiek hor zeudenak dira, ez ditugu guk egin. Gik Estatutuak hartu eta aplikatu egin ditugu. Uste dugu, GOIEKI ez duela Beasaingo Udalak konpondu behar edo izendapenak, ez dituela Beasaingo Udalak blokeatu behar. Iruditzen zaiguna da, hori GOIEKIn bertan zuzendu beharreko gauza dela eta guk egin behar duguna da hori erraztu GOIEKI martxan jartzeko. Estatutuak aldatu behar badira ez dugu inolako arazorik ikusten. Ordezkariekin jarraituz, komentatu Goierri guztira 23 alderdi aurkeztu ginela hauteskundeetara. Beraz, ez dut uste, bakarrik PP, H1 eta Aralar izan beharko liekeela ordezkatu beharrekoak. Herri txikietan ere herrietako alderdi asko kanpoan geldituko dira eta ez dut uste horiek ere beste inor baino gutxiago direnik. Beasainen bertan, EB hor dago, nahiz eta zinegotzirik ez lortu. Zuek markatzen duzuen arabera, horrek ere lekua izan beharko luke.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Baina udaletan lortzen den ordezkartza boto kopuru batek ematen du. Udaletako ordezkartzetaz ari gara. Beasainek beste herri batek baino indar gehiago?. Kasu honetan badu, H1 eta PP, bakarrik Beasainen ordezkartuta daudelako. Gure asmoa ez da gu egotea, baizik eta ordezkartza zabal hori ematea, ahalik eta alderdi gehiena ordezkartuta egon. Ordiziako Alkateari ere esan zitzaion, H1eko ordezkaria Zegaman dago, Aralarkoa ere bai. Modua badago egin nahi bada. Aurretik udaletan hartu behar dira erabakiak eta ez han hartu banaketa egina dagoenean. Hori da gure ikuspegia.”

Alfonso Segade jaunak (PSE-EE/PSOE): “No sé si se va a someter a votación. Es una ceremonia de confusión, pero a nuestro grupo no le interesa la filosofía. Quisiéramos saber que se va a proponer.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Nosotros al Alcalde lo que le hemos propuesto ha sido una contrapropuesta en la que se vote que los partidos por Beasain sean el partido popular, el partido socialista y Hamaika Bat.”

Alkatea jaunak (BILDU): “Nuestra propuesta es la que hemos dicho al inicio en función de lo que dicen los Estatutos.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, Aitor Aldasoro jaunak aurkeztutako kontraproposamena bozkatu da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 10 (EAJ, PSE-EE/PSOE, H1, PP)

Aurkako botoak: 7 (BILDU, ARALAR)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin ondorengo erabakia hartu da:

“GOIEKiko Administrazio Kontseiluan parte hartzeko, Beasaingo ondorengo zinegotziak izendatzea:

ANA M<sup>a</sup> CRESPO BLANCO (PSE-EE/PSOE), JOSI INSUSTI MUJIKA (H1) eta JULIO HERREROS SERNA (PP).”

Alkate jaunak (BILDU): “Nik hau ikusita komentatu nahiko nuke, BILDU kaltetzeko asmotan hartzen ari zareten erabaki horrekin, iruditzen zaigu kaltetu bakarrak beasaindarrak direla. Uste dugu ez dela egokia gaur hartutako erabakia, baina zuen ustez horrela da.”

**8.- ESKAERA ETA GALDERAK.** Eskaera eta galderen atalean honelakoak aurkeztu dira.

#### EUSKAL PRESOEN ESKUBIDEEN ALDEKO OHARRA

Zezenia Herrador andreak (BILDU): “Une historikoa bizi digu Euskal Herrian eta ETA erakundeak borroka armatua behin betiko uzteko konpromisoarekin ziklo politiko berri bati hasiera emateko oinarria sendotu da. Azken hamarkadetan bizi izan dugun konfrontazio armatua behin betiko ixteko aukera eta eztabaida demokratikoan oinarritutako eszena tokiaren ateak ari dira irekitzen. Gernikako akordioan hitzartutakoari jarraiki eta AIETEn Nazioarteko Komunitateak zabalduetako mandatuaren norabidean, ETAREN erabakiak gatazka politikoa bake bidera eramateko aukera batena urtean jarri gaitu. Normalizazio politikorako norabidean eman beharreko urratsetan besteak beste, Euskal Preso politikoen eskubideen errespetua bermatu beharko da. Gernikako akordioaren hitzetan ezinbestekoa da Euskal Preso politikoen aurka aplikatzen den espetxe politika etetea, konfrontaziorako estrategia gisa erabili da eta. Era berean honako neurri hauek hartzea, amnistiarako bidean lehen urrats moduan gatazka politikoa eragindako preso eta iheslari batera ere egon ez dadin. Preso guztiak Euskal Herrira ekartzera, dispertsioarekin amaituz, gaixotasun larriak dituzten presoak aske uztea eta epaituak izateko zain dauden preso prebentiboek behin-behineko askatasuna ematea, legeak ezarritakoak beteak dituzten zigortutako preso guztiei baldintzapeko askatasuna ematea, legeak jasotzen dituen espetxe-onurak aplikatzea, murrizketari eta arbitrariotasunik gabe eta azkenik zigorra betetzeko muga berrogei urtetan ezartzen duen legea indargabetzea. Euskal gizarteak urte asko

daramatza preso politikoen eskubideen bermeak eskatzen. Urteak, presoan aurkako neurriek senideengan dituzten ondorio larriak salatzen. Urteak, Estatu Espainiarrak zein Frantsesari bere legea betetzeko eskatzen. Munduan eman diren prozesu desberdinetan bezala, Euskal Herrian ere preso politikoen errealitateari konponbidea eman behar zaio. Era berean konponbide politikoen baitan presoek ere parte izan behar dutelarik. Ziklo bat behin betikoz itxi eta etorkizunean aske egingo gaituen ziklo berria indarrez irekitzeko. Azken asteetako hitz eta ekintzei berrira jarriz Madril eta Parisetik ez da egoera berriaren tamainako urratsik eman. Presoen dispersioak bere horretan jarraitzen du, senitartekoek milaka kilometro egiten dituzte, hamarnaka Euskal Presoek PAROT dotrinaren ondorioz, hil arteko zigorra izaten jarraitzen dute. Gaixotasun larriekin dauden hainbat preso, baldintza kaxkarretan jarraitzen dute. Egoera hau aldatzea eta atzerapenik gabeko urratsak ematea ezinbestekoa da. Hori guztia kontuan hartuta, udal gobernu honek adierazpen hau aurkezten du, beste taldeek ere jakin dezaten eta nahi izanez gero gurekin batu daitezten. Batetik udal gobernu honek bizi duen egoera historiko honena urtean, Euskal Preso politikoen eskubideen errespetua eskatzen du, hala nola, besteak beste, dispersioaren amaiera eta preso guztien Euskal Herriratzea. Gaixotasun larriak dituzten presoek askatzea eta zigorra beteta dutenak askatzea. Bigarrenik, udal gobernu honek datorren urtarrilaren 7an Euskal Presoen politikoen eskubideen alde egingo den manifestaldiarekin bat egitea.”

## GOIEKI

Asier Sarriegui jaunak (BILDU): “Gogoratu nahi dut gu orain dela urte eta erdi, bi urte Hamaikabatekoek joan zirenean Eusko Alkartasunatik, GOIEKIn ordezkariak gabe gelditu ginen. Badirudi orain oso demokratikoak garela eta bermatu nahi dela talde politiko guztiak GOIEKIn egotea, baina Hamaikabatekoari orain arte ez dion entzun garai hartan Eusko Alkartasuna hortik kanpo geratu zenean, inolako esfortzurik ez zuela egin gu han egoteko edota bileretara gonbidatzeko. Gogoratu baita ere EAJri gu Ordizian zinegotzi batekin geratu ginela eta Ordiziko EAJri eskatu geniola, Ordiziko zinegotzi horren bitartez GOIEKIn sarrera ematea Eusko Alkartasunari, baina uko egin zitzaigun eta ordezkariak gabe geratu ginen. Orain ez dakit nondik azaltzen den zuen jarrera demokratiko hori, sekula ezer egin ez duzuen beste talde politiko batzen partaidetza errazteko.”

Josi Insausti jaunak (H1): “EAn oraindik banaketa izan gabe, GOIEKIn Eusko Alkartasunako ordezkariak Eudene Albisu eta Mikel Areizaga zauden, baina Ordiziko EAJri ordezkari batek ez zituen onartzen bi pertsona hauek GOIEKIn EAJri ordezkari gisa egotea, baizik eta independente gisa. Nik uste dut barruko arazoak barruan geratu behar direla. Denak kaleratzen hasten bagara, ba kaleratu daitezke, baina abiapuntuan denok EAn geundenean, bi ordezkari ba zauden, baina ez ziren EAJri ordezkariak bezala onartzen.”

Asier Sarriegui jaunak (BILDU): “Zuk badakizu EAko ordezkari horiek, H1era pasatu zirela.”

Publikoan dagoen batek adierazi du politika kontuan besterik ez dela gai hau. GOIKI sortu zenean talde politiko desberdinen artean beste banaketa bat zegoela dio, eta badirudiela orain maioriak aldatu direnean Estatutuei buruzko zalantzak sortzen direla, oraindik ere egoera berri hau ez dutelako onartu. Jarraitzen du esaten Estatutuak aldatu daitezkeela, baina herri txikien, eta sindikatuen partaidetza ere aurreikusi beharko litzatekeela.

Alkateak adierazi du, beraien behar diren aldaketak egiteko irekita daudela.

Zezenia Herrador andreak (BILDU): “Horretarako lanean hasi behar da.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Esan, historikoki espirtu bat egon dela eta horren islada PPko alderdia izan da. 1995etik dago GOIEKIn eta hori izan da, norbaitek bere postua utzi diolako. Espirtu hori ere Estatutuen barruan jarri nahi izan zen, baina badirudi legez ez zela posible izan. Guk gure postuari uko egitea prest gaude, beste batzuk egon daitezzen. Zezenia dioen moduan gu prest gaude hitz egiteko.”

Josi Insausti jaunak (H1): “Bai, gure prest gaude hitz egiteko, baina nik utz dezagun gaurko proposamena mahai gainean eta hitz egin dezagun.”

Zezenia Herrador andreak (BILDU): “Bai, azkenean gauzak koadratzen ez dutenean Estatutuak aldatu behar dira. Matematika kontuan besterik ez da.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Bai, baina espirtua bada, denak ordezkatuta egotea, gutxienez denekin hitz egin beharko da. Ordiziako Alkateak bakarrik nirekin hitz egin zuen. Ez du beste taldeekin hitz egin.”

Alkate jaunak (BILDU): “Estatutuen arabera ez delako tokatzen.”

Josi Insausti jaunak (H1): “Ba orduan gero ez eskatu gure borondatea azaltzeko.”

Ugartemendin zenbat etxebizitza egin behar diren publikoan dagoen pertsona batek egindako galderari erantzun zaio, 637 etxebizitza egin behar direla.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera arratsaldeko zortziak laurden gutxietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.